

EUSKAL ERRIETATIK

suena egin zan, aldarean Karlos Anasagastix Jaunak ofiziatuak. Ondoren, itze- ginen zuben erderaz ta bai ederki ta bizikiro Zabalgoeasko'ar Aita Adrian prantzis- kotarrak.

Jaiegunez, Oñatiar Peregrinazioa izan genuen, egun ederrakin oiñez etorrita. Meza aurretik, Eleiza erabat beterik zegoela, Donostiko Gotzai berriari, Bereziartua'tar Lorentxo Jaun agurgarriari iritxi zan ta egiazko arrera biotzkor bat egin zitzaion. Berarekin etorri ziren baita ere Gipuzkoako Gobernadore Jauna ta Diputazioa osorik. Meza nagusia Obispo Jaunak eman zuen, ta itze gine ere berak poliki asko iz- kera bietara, gaztelerez ta euskeraz den- dora berdiñean. Egia esan, biotzak ba- rreneraño ikutu zigun danori gure Gotzai maitea erriko izakeraz mintzatzen ikus- ak. Adierazi zuen Arantzazuko Amak auker- ratu duela bera Gippuzkoako Gotzaitza- rako, ta Arantzazuko Amabirjinari es- keintzen zion Guipuzkoako Eleiz-barru- ti osoa. Artzai ta ardi bide onetik Berak eraman gaitzan. Otoitz bero bat Birjinari zuzenduaz, bukatu zuen itzaldia

Iru Gotzai Jaunek eta erriagintariak prallean jantokian bazkaldu zuten. Baz- kari denboran presentatu zitzaion Gotzai- ori Arantzazuko Basilika berriari eleiz ederrean bezela eskeini zaion lehen pre- mioaren agerkarizko plaka. Premio au Euskal Naparruko Arkitekturen Batzarrak eratutakoa da, ta beraren berri garaz eman genuen.

Bukatzeke, zorionak Gotzai berri agur- gariari ta izan dezazula zeure erriaren arazoak ongi erabakitzeke zeruko argia.

F. I.

TOLOSA

Zer gertatzen da Tolosan? «Zeruko ar- gia» aste-oro artzen det eta Tolosako be- rriak beñi eree z... Erderazko eguneroko- tan bolara ontan gai ugari dabilta, baiñ euskeraz bat-ere ez.

Idazten oso egokia ez izan aren, gaur zerbaite esan nai nuke. Euskeraz dakite- nak Tolosan asko dira; gurasoen artean, geienak; gaztediak ere badaki. Bañan itze gine... oso gutxi. Tolosako euskera oso ederra onen da, eta au entzutean arro- ti egiten gera. Ederra!, bañan zertarako? gordeta eukitzeke?

Gai oni buruz, zer aundia litzake eta, agian, egunen batean esango degu. Tolo- sak merezi du eta bear du. Gaurkoz auzen:

Euskerazko ikastolatxo bat badegu gu- re errian, bañan oso gutxi dala deritazt. Aurtxoak zazpi urte artean euskeraz ikasi ta gero bereala, aundien kolejio eta esko- letara sartzen direanean, erderaz asi ta euskera aaztu egiten dute. Orrela ezer gutxi aurreratzen degu. Ez al-genduke as- koren artean aunditxoentzat ikastola eder bat jariko?

Eskolapioak euren kolejoan euskera erakusten dute; mojak ez al-dute ezer egin bear? Leendik ere naiko erru badute gai ontan, aurrerakoan erru oiek aundit- zen joan gabe...

Barkatu, bañan au esan gabe ezin gel- ditu: Santa Mariko Elizan euskeraz oso gutxi egiten da. ez itze gine da ez arrezatu. Euskeraz egin nai dunak, goizean goiz —illunpetan— edo bestela Meza Nagusi- ra joan bear. Bederatziurren da iruurrene- tako itzaldiak danak erderaz egiten dira... Parroki ortan bataiatuta gaudenori, gure eliza ortara joatea atsegin zaigu, bañan beti erderaz ai diralako askotan joan gabe gelditzen gera: nere aita ta amarekin eta nere senideekin euskeraz itze giten det, eta nere Zeruko Aitarekin ere euskeraz itze- gin nai nuke... Santa Marin euskera alde batera utzia dago bañan —ez da txant- xetako gauza— gure Tolosako Parroki ederrean euskera gelago nai genduke..

Bakoitzak gure aldetik al-deguna jarri dezagun eta —ziur egon— Tolosan gau- zak ez dira gaur dauden bezela geldituko. Eskerik-asko!

ARRAMELE

ERRIAK eta GIZONAK

BOSCH'en AGINTARITZA MOTXA

Naiko oituak gaude Ameriketa aldean erreboluzio berri bat izan dala aditzen. Orañ bertan berri bat izan degu, Repu- blica Dominicana izenekoa. Errebolu- zioa ez ezik ere militarren golpe bat da- la esanaz egia obetogo esango nuke. Orañ bota duten lendakaria, Juan Bosch jauna, lendakaritza, zortzi illabe- te egin gabe, utzi izandu du. Lege jato- rrez egindako lendakaria zan. Nazio or- tan Trujillo egon zan urte askotan dik- tadore bezela, azkenean, ori ill zutenean,

elekzioak egin ondoren erriak Juan Bosch aukeratu zuan lendakari, eumetik irurogeiek beregatik botua emanaz. Gi- zontz jatorra ta benetako demokrata. Ba- dia Ameriketako demokrata talde polli- ta osatzen duten lendakariak, ezker-za- leak eta aurrera-zaleak diranak castris- tak izan gabe; Ameriketako demokra- zianen etorkizuna gizon oien esketan arkitzen da, gizon oiek bakarrik ikus ezazi dezakete gauzak konpondu ta zu- zandu ditezkeela gizonari bere eskubi-

deak kendu gabe eta estadia jaingo ta jabe egin gabe. Onela Venezuela eta Costa Rica'ko lendakariak.

Jakiña, nola ez, militarrek esan dute- nez golpe ori eman bearrean arkitu di- ra Bosch jaunak «komunismoaren lana- ri» laguntzen ziolako. Gañera «Konsti- tuzioaren bidez konpondu ez ditezken prolemak konpontzeke». Arritzekoa da Ameriketa aldean militarrek altxatzen direanean beti arrazoi berdiñak ekartzea. Bere oiek egiten dutena ez ote da komu- nismoari laguntzeko modurik egokia- na? Gauzak aini zaillak baldin badira konpontzan, ez al dira zaillako egiten militarren reazioaren bildurrekin? Bai badakit Bosch jaunak esku-arte- an zeuzkan prolemak eta erabaki bearrak etzirala nolanaikoa, alboko Haiti'kin asarre zebillela, ekonomia ere gaizki zi- joala. Azkeneko egunetan Bosch jauna ori konpondu naiean zebillen, ikusten zuan ori konpontzeke, ondatu xamarra zegoan administrazioa eraberritu bearra zegoala, oraindik ere ezker alderago jo bear zuala tajaz jokatzeko, zergatik ez diote militarrek ori egiten utzi?

Xabier Gereño

Arregi'tar Rikardo'k

Donostia'n izan da txistula- rien urteroko batzar nagusia

Irailaren 22'gn., igande, izan da Do- nostia'n Euskal-Erriko Txistularien Al- kartasunaren urteroko batzar nagusia.

Goizetik, uri ta errietatik etorri ziran Donostia'ra eunka ta eunka txistulari: naparrak, laburdiarrak, arabarrak, gi- puzkoarrak, bizkaitarrak. Amara'ko Es- koletan batu ziran guztiak ta andik, ka- leak zear, Udaletxera, Alkateari, «Alka- te Soñua»ren bitartez agurra ematera.

Eguerdian, Trinitade Plazan, jentez bete-beteta, konzertoa asi zan. Bastida jauna zuzendari ebela, 350 txistularien izugarrizko konzertoa entzun genduan. Azkenean, «Gernika'ko Arbola», zutu- nik ta txapelak kenduaz, ta «Agur jau- nak». Esan daigun Iparragi'ren abesti eder ta sakon ori birritan jo zala, entzu- leak eskatuta.

Baskaria, La Perla restaurant dotorean euki eben. Bere bitartean, Muñoz Baro- ja jauna, alkate-ordezkoak, itz egin eban txistulariari ondo etorria emonaz. Onen ondoren, Cambo'tik diputadu dan Michel Labeguerie jaunak euskeraz egin eban itz, beste aldetik etorri ziran txis- tularien agurra emengoai emoteko. Txalo luze ta beroak jaso ziran jaun au ber- betan asi baño len, ta luzeagoak ta be- roagoak itz eginda gero.

Txistularien lendakari, Javier Arbide jaunak, zabaldu eban Alkartasunaren ur- teroko batzar nagusia. Irakurri eban mi- krofonotik urte onetan buru-batzarrak egin dauan lana, erderaz. Gero, Ansore- na jaunak, euskerara biurtu eban len er- deraz esandakoa. Batzarkideak baimena eman eben zuzendarien lanari ta onen ondoren txistulari asko joan ziran mi- krofonora onen edo aren gañean itz egi- teko.

Esan daigun txistularien batzar oneik bizitasun andia daukela, etzoazala guz- tiari, zuzentzi barik, «amen» esateko. Ori igandean ikusi genduan ederto. Nor- baitetik «ez» esan bear baeban, «ez» es- aten eban argi ta garbi. Emen dago alkar-

tasun onen indarra, 2.000 batzarkidekun alkartasun bizi ta sendoa. Batzarrak amaitzeko, guztiak zutunik «Agur jau- nak» abestu eben, ta gero, Donostia'ko kaleak inoiz baño alaiturik egozan eun- ka txistulariak euren soñu gozo ta alaiak joaz.

BURU AINBAT ABURU

EZTA...! BAIDA...!

EUSKALTZAINDIA'REN ARANTZAZU'KO

Danak dakigunlez Euskaltzaindia'k euskaltzalian batzar bat eratu dau Aran- tzazu'n egiteko.

Bertan erabiliko diran gaiak: Euskal itzegia ta kultura itzak. Ez dau inork esango garrantzi gutxi- ko gaiak diranik. Euskerak edozertarako izan daitean gaitu biarra dauka.

Baño gure batzarretan biarren edo premiñezkuan, dan gaia baztartuta euki- ten dogu: Euskera erriaren aotan indar- tzia. Euskerak bizirik irauten ba'dau ko- meni yako kultura jatziz jartzia. Baño euskeriantzako gure jokabidea aldatzen ez ba'dogu, bide barriak artzen artzen ez ba'doguz baserria zuloetan edo izan ezik Euskeriak ez da entzungo emendik berrogaita amar urtera.

Au olan ba'da upiñak dira gure batza- rretako lan oneik. Euskeria gugaz amai- tuko ba'da zorakeriak itzegi gramatika ta literatura lan guztiak. Geroko iru edo lau jakintzuk ildako izkuntza baten az- terketak egiteko baño ez dabe balioko ta.

Gaur gaurko gauza bat bakarra izan biar dau benetan garrantzitsua: Euske- ria ez daitela il, gure izkuntza indartzia.

Orretarako zuzendu biar doguz gure alegiñik andienak.

Beraz Arantzazu'ko batzar orretan ez daigun arazo zu xildu. Beste gaiari ekti- zia ondo dago baño arazo onetaz be ez gaitzen aztu. Euskera erriaren aotan in- dartzeko alegiñik ez egitekotan kultura danak ez dauke sentidurik. Bietara egin daigun ba.

Euskeria galtzen ba'da danok gera errudun baña gu euskeraren Zaintzalle- lez agertzen geranok geien, biar dan lez jokatu ez dagulako.

Buruz, biotzez ta ausardiz jokatu dai- gun euskeran alde.

Kamiñazpi

La Fanderia, S. A.



Eratu gabeko pentsoarekin



Fanderiko pensoarekin

Ez Merkenak, Bai onenak!!!


Apdo., 36 Tel. 56134

RENERIA

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

Euskal Irratsaloak

BASERRIAREN ALDE



Banen baneko aziyak. Ongarri ta abonoak.

Belar Zuloat.

Torrelavega'ko Perira joan etorriak.

Baserri, lur-tresnak ta abar. Erosi edo berritzeko diru aurreratzea.